

ZU GABE

Ezagutu zintudan
gau ero hartatik(an)
Nork pentsatuko luke
Nork esango zidan
zugatik lerdetan
itoko nintzela



Irribarre goxoa
baina ikasia
Begirada inozo
bezain lizuna
(e)ta arnasa kentzeko
gorputz landua

Zu gabe zu gabe
askoz hobe nago
zu gabe

Besteak bezala
ni ere jausi nintzen
berezia izan zela
gutziz sinetsita
itsu itsu
zure sarekadan

Esan nizkizun
hitz goxo guztiak
bidali nizkizun
mezu (e)ta emailak
zure harrokeria puzteko
baino ez ziren

Zu gabe zu gabe
askoz hobe nago
zu gabe

Ze esatek musika taldearen abestia

23. Irakurri berri duzun poesia hori abesti baten letra da. Irakur ezazu behar adina eta identifikatu bere gaia:

- A. Asko maite duen pertsona bat goraiatzan du.
- B. Naturako paraje bat deskribatzen du.
- C. Esperientzia pertsonalak eta sentimenduak adierazten ditu.
- D. Naturako paraje bat eta sentimenduak nahasten ditu.

24. Nori abesten ote dio kantariak, neska bati ala mutil bati?

- A. Ez dago ziur-ziur jakiterik.
- B. Neska bati, ziur-ziur.
- C. Mutil bati, ziur-ziur.
- D. Bikote bati, ziur-ziur.

25. Lehenengo paragrafoan esaten du “Nork esango zidan zugatik lerdetan itoko nintzela”. Horrela adierazi nahi du...

- A. Nork esango zidan hilko nintzela.
- B. Nork esango zidan maiteminduko nintzela.
- C. Nork esango zidan itsasoko ur gazian itoko nintzela.
- D. Nork esango zidan ur zikinean itoko nintzela.

26. Abestian ageri den “... zure harrokeria puzteko baino ez ziren” esaldiaren pareko zuzena da:

- A. Zure harrokeria puztu nahi nuen.
- B. Zure harrokeria puzteko besterik ez ziren izan.
- C. Zure harrokeria puztea ez zuten lortu.
- D. Zure harrokeria txikia zen, eta puzteko ziren.

27. Taldearen izena dela eta, nola esaten da Ze esatek batuan:

- A. Zer esan didak.
- B. Zer esan duzu.
- C. Zer esaten didak.
- D. Zer esaten duk.

28. Poesiaren barnean zein genero literario erabiltzen du?

- A. Genero narratiboa (istorio bat soilik kontatzen du).
- B. Genero lirikoa (sentimenduak soilik adierazten ditu).
- C. Poesiaren barnean ez da generorik bereizten.
- D. Genero narratiboa eta lirikoa nahasten ditu nahiz eta bietako bat nagusitu.

29. Poesiek tonu desberdinak adierazi ohi dituzte, nahiz eta batzuetan zaila izan bat soilik aukeratzea. Aukeratu ondorengo multzoetan poesia honen tonua egokien adieraziko luketen hitzak:

- A. Goraipatzailea, laudoriotsua.
- B. Ironikoa, satirikoa.
- C. Fantastikoa, absurdoa.
- D. Hausnartzailea, erreflexiboa.

30. Poesia honetan pertsona bat deskribatzen da. Pertsona horri buruz, nolako datuak ematen ditu?

- A. Ezaugarri fisikoak.
- B. Izaerari buruzkoak.
- C. Ezaugarri fisikoak eta izaerari buruzkoak.
- D. Irribarre eta begirada bakarrik deskribatzen ditu.

31. Nola ote dago abeslaria, bene-benetan, deskribatzen duen pertsona hori gabe?

- A. Garbi adierazten du askoz hobeki dagoela.
- B. Pertsona hori gabe okerrago dago, oraindik maitemindurik baitago.
- C. Ez dago jakiterik, ez baitu garbi adierazten.
- D. Penaz eta damaturik, pertsona horrekin zuen harremana amaitu zelako.

32. Ongi dakizun bezala, poeta guztiek gustukoak dituzte errekurtso literarioak (metaforak, konparazioak, pertsonifikazioak, hiperbole edo gehiegikeriak, sinestesiak, antitesiak, onomatopeiak, aliterazioak...). Aipa ezazu poesia honetan ageri den errekurtso horietako bat, eta adierazi horren adibidea ere.

.....

.....

.....